



BALIOA DAUKATEN ERREZETAK

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:

Arloa: Gizarte-zientziak. 2. blokea: Gure mundua.

Arloa: Hizkuntza eta literatura. 1. blokea: Ahozko komunikazioa: hitz egin eta entzun; 3. blokea: Idatzizko komunikazioa: idatzi.

Arloa: Hezkuntza plastikoa. 1. blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza.

Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak. 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

Hezitzailearentzako oharra:

- Jarduera hau egin baino lehen, «Udarearen istorioa» ipuina irakurri behar duzue.
- Jarduera honetan, daukaten «balioa» emango diegu elikagaiari. Besteak beste, balio hauek landuko ditugu: erantzukizuna, jasagarritasuna eta sormena.
- Jarduerearen lehen zatia etxean egin beharko dute neska-mutilek, familiaren laguntzarekin.
- Polita litzateke neska-mutilek ekarritako errezeta guztiak ikastetxeko webgunean zintzilikatzea, familiek errezeta horiek eskuratzeko modua izan dezaten; izan ere, elikagaiak aprobetxatzeari begira, ideiak jaso ditzakete errezeta horietatik. Gogoan izan Espainian zaborretara botatzen ditugun 7,7 milioi tonatatik 1,3 milioi etxeetan botatzen ditugula.

Garapena:

- Gogorarazi ipuinean zer prestatzea erabaki duten, hozkailuan kadukatzear dauden janariak aprobetxatzeko. Hain zuzen ere, eredu horri jarraituko diogu jarduera honetan.
- Esan neska-mutilei hozkailuan denbora gehien daramaten elikagaiak bilatzeko etxean, helduen laguntzarekin (hondatzeak dauden elikagaiak, prestatutako janarien soberakinak...). Osagai horiekin, errezeta bat pentsa eta egin dezatela.
- Gero, errezeta hori idatziz jar dezatela, eskolara eramateko. Sormena lan dezatela, errezeta modu berezi eta erakargarrian aurkezteko (prozesuaren argazkiak, marrazkiak edo bideoak egin ditzakete). Errezetari izena jartzeko orduan ere lan dezatela sormena.



Hausnarketa:

- Errezeta guztiak bildu, eta gelan ondo ikusteko moduko leku batean jarri.
- Pentsatu jardueraren izenburuan: «Balioa daukaten errezetak»:
 - Zuen ustez, zergatik du jarduerak izenburu hori? Zein balio landu ditugu errezeta hauen bidez?
 - Zein balio bultzatzen ditugu janariak zaborretara bota beharrean aprobe txatu egiten ditugunean?